



BIHARTIK AURRERA ANTZERKIA PROTAGONISTA

Guztira sei emanaldi izango dira ikusgai Villabonako eta Zizurkilgo antzoki eta kaleetan; umorea izango da nagusi 6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2009-04-23

VIIURTEA 1.683.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Isabel Diez bilbotarra kolorearen erabileran murgiltzen da bere lanen bitartez; Benito Izagirre kultur etxean dago ikusgai maiatzaren 7ra arte. ISABEL DIEZ

EUSKAL KOSTA LAU OBJEKTIBOREN PEAN

IBARRA 'Kosta bat, lau begirada' erakusketak Badillo, Diez, Esteban eta Castroren argazkiak biltzen ditu 5

JERONIMO LOPEZ GEOLOGIAN DOKTOREA

«Planeta osoan dute eragina Antartikan ematen diren aldaketek»

TOLOSA Naturaldia jardunaldien baitan gaur solasaldia izango da, dokumentalaz gain 3

Herriarteko Txapelketako partidak jokatu dituzte asteburuan

TOLOSALDEA Amezketan, Albizturren eta Bidegoianen izango dira partidak 4

'100% Tricycle' lanaren estreinaldia etzi Leidor aretoan

TOLOSA Clownic taldeak zazpi ikuskizunetan taularatutako une onenak biltzen ditu lanak 2



HITZAK harpidedunentzat
2 sarrerak pare ditu
**Akaba Bera Bera
Balonmano Alcobendas**

Bidebietako kiroldegia
Apirilak 26 • igandea • 19:00



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat
2 sarrerak pare ditu

**II. Ñañarri
Rallyesprint**

Alegia - Orendain - Abaltzisketa - Amezketan
Apirilak 25 • larunbata • 15:30



sarrerak eskuratzeko deitu: 943-65 56 95 harpidedun kodea eskura duzula

TXOKOA hitza



Orain artean taularatu dituzten zazpi ikuskizunetako unerik onenekin osatu dute '100% Tricicle' ikuskizuna. HITZA

» 100% TRICICLE

■ **Eguna.** Apirilak 25, larunbata.
 ■ **Ordua.** 20:30.
 ■ **Tokia.** Leidor antzokia.
 ■ **Sarrera.** 15 eurotan erosi daitezke, www.kutxa.net, Servikutxa eta Telekutxa bitartez. Baita, 943 00 12 00ra deituta. Aldez aurretik Leidorreko leihatilan erosiz gero, %30eko beherapena izango dute Gazte-txartela dutenek, Familia Ugariak eta Jubilatuek.

20 estatu baino gehiagotan egon dira Triciclekoak, arrakasta handia lortuz publikoaren nahiz kritikoen aldetik. Beraian umorea herrialde ezberdinetara gerturatu dute, exotiko nahiz urrunekoetara batzuetan. Hauetan, kultura mailan, ez dute inolako bazterketarik jaso eta ez dute ikuskizunaren egi-turarik aldatu beharrik izan.

1985ean, Slastic ikuskizunarekin Frantziatik egindako bira baten ostean, berain Frantziako agenteak bira berri bat proposatu zien. Baina, lan berri bat aurkeztear zirenez, ezin izan zuten onartu eskaintza, eta bigarrent alde bat osatzea erabaki zuten, konpromiso hauek bete ahal izateko.

Clownic taldea keinukako antzerkia espezializatutako hiru aktorek osatzen dute. Antzerkiko beste zenbait eredutan arituak dira, hala nola, dantza eta antzerki musikalak. Hainbat hiritan egindako kastingen ondoren Triciclek zuzendutako lana oso ongi betetzen duten hiru aktore aurkitu zituzten. Hauek ez dira imitazioa soilak, freskotasuna eta sormena gehitzen dute. Etzi taula gainean izango dira: Eduard Mendez, Antonio del Valle eta Jaume Ortanobas. Clownic-ek erakusten du gidoiaren kalitatean oinarritzen dela Tricicleren umorea, eta interpretatzen jekuzioan.

Clownic taldeak '100% Tricicle' lana estreinatuko du etzi Leidor antzokian

Kultura » Zazpi ikuskizunetan konpainiak taularatuak uone onenak biltzen ditu prestatu berri duten bildumak.

ERREDAKZIOA

Clownic antzerki taldeak bere azken lana, *100% Tricicle* Tolosan estreinatuko du. Emanaldia etzi Leidor antzokian izango da, 20:30ean.

100% Tricicle, hainbat eta hainbatetan ikusleek errepikatzen eskatu dituzten sketch-ak biltzen dituzte Clownic taldekoek. Beraian helburua hamar segundoero barreak eta algarak sortaraztea da.

Tricicleren umorea eta taularaztea eguneroko gertaeretan eta ohiko pertsonetan oinarritzen da. Hauek komediara kanalizatuak dira, pil-pilean dauden gaiak alde batera utzita, ateporal bilakatuak. Honela, urteak igaro arren, indarrean jarraitzen dute interprete ezberdinekin ere.

Tricicleren estiloa bizitasunagatik bereizten da batik bat, baita, eszena motz eta pertsonaien aldaketa azkarrengatik. Onomatopeia naturalak erabiltzen dituzte, itzuli surrealistikak egiten dituzte eta hainbat ezusteko eman.

100% Tricicle antzerki taldearen zazpi ikuskizunetako uone onenak biltzen dituen antologia da: *Mani-*

comic, Exit, Slastic, Terrific, Entretres, Sit eta Garrick, egun, Tricicle 2 konpainiak antzeztua eta Triciclek zuzendua.

Tolosan aurkeztuko duten emanaldian, 10 edo 15 segundoero barrea algar bat sortzen da. Umore erritmo oso azkarra sortzen da. Modu honetan. Hau da, Tricicleren ikuskizunaren arrakastaren arrazoia. Emanaldiaren leloa da publikoaren barrea 10 segundotik behin entzutea.

30 urte jendearen barreak eragiten

Duela hiru hamarkada sortu zen Tricicle, barrea sortaraz, hitza erabilgabe. Komunikabideek Tri-

cicle estiloa bezala definitzen dute hau, baina beraiek, antzerkia akzioan deitzen dute. Non erritmo oso bizia umore unibertsalarekin batzen den. Honen eraginez sortzen dira algarak, 10 segundotik behin.

Keaton, Tati, Wilder, Lubitsch eta Monty Python-en eraginpean, umore pertsonal bat garatu dute, eguneroko bizitzan oinarritua eta ikuspuntu ikaragarri batetik behintua. Batzutan, prisma hau, inozoa eta zentzugabea delarik. Bertan ikuslea islatua ikusten da, eta aldi berean, harrapatua. Honela, ikuskizunaren lehen minututik ez du irribarreagaltzen, ez eta algarera, emanaldia amaitu arte.

Mendia » Aklimatazio prozesuan ari dira; 12. zortzimilakoa izango luke hau; berarekin batera da Asier Izagirre tolosarra.

ERREDAKZIOA

Edurne Pasaban mendizalea Kangchenjunga (8.556 metro) igotzeko ahaleginetan, oinarritzeko kanpamentuan da jada.

Lehendabiziko kanpamentura ere igo dira, eta orain, pixkanaka, aklimatazio lanetan ari dira. Gora eta behera dabilta, materiala igoz eta gauzak prestatuz. Pasabanek bere webgunean emandako infor-

Kangchenjunga igotzeko bidean, lehen kanpamentura iritsi da Edurne Pasaban

mazioaren arabera, oraingoz oso ondo doa dena eta egokitze lanak behar bezala ari dira ematen. Orain, 5.600 metroko altueran aurkitzen dira.

Aurreko espedizioetan bezala, Pasabanekin batera da Asier Izagirre Tolosarra. Oraingoan, bidelagun ditu ere Juanito Oiarzabal, Alex Txikon, Jorge Egozteaga eta Ferran Latorre. Gutxi gorabehera, hilabete beharko dute gauzak prestatu eta tontorraren bila joate-



Kangchenjunga (8.556 metro) igotzea da orain Edurne Pasabanek duen erronka. HITZA

ko. Planetako 14 zortzimilakoa igo dituen aurreko emakumea izan nahi du Pasabanek eta helburu hori lortzeko bidean, orain ha-

mabagarrenaren bila doa. Tontor hau igotzea lortuko balu, beste bi bakarrik geratuko litzaizkioke: Annapurna (8.091), eta Shisha

Pangma (8.027) hain zuzen ere. Azken hau igotzen saiatu zen joan den urteko urrian, baina bertan behera geratu zen asmoa.

Beti nahi
jatetxea

Garaian
 garaiko janariak
 Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

E Elkarrizketa

JERONIMO LOPEZ › Geologia Zientzietako doktorea

«Antartikan ematen diren aldaketek eragin zuzena dute planeta osoan»

Natura › Naturaldiaren baitako gaurko solasaldian Jeronimo Lopez geologia izango da hizlaria; 'Munduaren azkeneko elkartzeak' dokumentala ere izango da ikusgai.



HITZA

INIGO TERRADILLOS

Naturaldia jardunaldien baitan, eta Zine Forumarekin bat eginez, ikus-entzunezkoaren txanda da gaurkoan. Hain zuzen ere, Werner Herzogek zuzendutako *Munduaren azkeneko elkartzeak* dokumentala izango da ikusgai Leidor aretoan 19:30ean eta 22:15ean. Dokumentalaren aurretik aurkezpen lanak egingo ditu Jeronimo Lopez Geologia Zientzietako doktorea eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakasleak, eta filma bukatu ostean solasaldirako tartea ere izango da. Josu Izutueta bidaiariak egingo ditu aurkezpen lanak.

Zein da gaurkoan jorratuko duzuegia?

Gaur ikusgai izango den Werner Herzogek *Munduaren azkeneko elkartzeak* dokumentala Antartikari eta han ikerketetan bizi diren zientzialariei buruzkoa da. Nik gairen aurkezpen txiki bat egingo dut hasi aurretik, eta bukatzean solasaldia izango dugu. Izan ere, zortzi proiektutan hartu dut parte bertan. Hainbat zonaldetan izan naiz Antartikan, lurralde desberdinen baseetan eta ontzietan. Hori da, hain zuzen, dokumentalean erakusten dena, zientzialari talde bat euren lanari eta egoerari buruz hitz egiten. Solasaldian, sortzen diren zalantzak eta hausnerketak erantzuten saiatuko naiz.

Nolakoa da Antartikan egiten den lana?

Antartika laborategi ikusgarria da ikerketa zehatz batzuetarako bereziki. Ikerketa horietako batzuk planetaren berokuntzarekin eta aldaketa klimatikoarekin dute erlazio zuzena. Horrelako ikerketetarako Antartika oso garrantzitsua da, han neurtzeko oso adirakorrek egiten baitira, oso urrun baitago jendea bizi den lekuetatik. Era berean, oso urrun egon arren, han gertatzen denak eragin zuzena du planeta osoan.

Zertan?

Antartikako izotzaren egoerak erlazio zuzena du itsasoaren mailaren aldaketekin, esaterako; halaber, hotz handiagoa edota txikiagoa egiteak planetaren klimarekin du erlazio zuzena, poloen ondorioak planetaren gainerako zatira zabaltzen baitira itsasoaren korronteen bidez.

Hango klimara egokitzea ez da erraza izango gizakiarentzat.

Gizakia Antartika bezalako muturreko egoera dagoen lurralde batera ohitzea oso zaila da. Lurraldea oso handia da, eta inoiz ez da egon historia zehar biztanlerik, beraz, ez dago herririk. Artikoan, ordea, bai. Antartikara doazanak zientzialariak dira, eta baita era guztietako laguntzaileak ere. Gaur egun, turisten bat ere joaten da. Ikerlari-lana hartzen duten 60 zientzia base inguru daude, beraz, denera, hainbat mila lagun bizi dira udan. Neguan, berriz, ehunka lagun.

Hainbat ikerlanetan hartu zuzen parte han.

Zortzi proiektutan hartu dut parte Antartikan. Geologia naiz ni, eta Antartika geologiarentzat ere oso interesgarria da, beste lekuetan aurkitu ezin daitezkeen datuak baitaude. Esaterako, iraganeko klimaren erregistroak aurki daitezke,

eta hauek ezin dira beste inon topatu. Zientifikoki interes handia duen leku batean lana egitea esan nahi du Antartikak, giro polit eta berezian.

Nola nabari da aldaketa klimatikoa han?

Lurraren beroketa edo klima aldaketa gehien nabari den lekua Polak dira. Beraz, Antartikan gai honi buruz lortzen diren informazioek asko laguntzen dute egoera hori ulertzen.

Tolosan bigarren izango zara jardunaldi hauetan.

Poloei eta Antartikari buruz egon nintzen hitz egiten lehenengoan, eta giro eta parte hartze oso polita nabaritu nuen. Aurtengo jardunaldiei dagokionez, barietate handia dagoela ikusi dut, beraz, natura eta ingurugiroaren gaira ikuspegi askotatik gerturatu ahalko dute parte-hartzaileek, eta hori oso garrantzitsua da.

L Laburrak

Txapin Festa antolatzeko bilera, gaur, Kultur Etxean

TOLOSA ● Bi aste barru bigarren Txapin Festa izango da Tolosan, eta ekitaldi hau prestatzeko azken bilera egingo dute gaur. Kultur Etxean izango da 19:30ean, eta bertaratzeko deia egin diete parte hartu nahi duten gazte guztiei. Aurtengo Txapin Festa ondorengo ekitaldiek osatuko dutela jakinarazi dute antolatzaileek: poteoa lokalez lokal, Mulanbo, gazte bazkaria, herri jolasak, artixten artelana, kontzertuak eta Dj-a.

Medikuntza txinatarrari buruzko hitzaldia

TOLOSA ● Aulas Kutxa programaren baitan, hitzaldia izango da datorren ostegunean, hau da, hilaren 30ean, Kultur Etxean. Nazaret zentroaren lankidetzarekin antolatutako hitzaldia medikuntza txinatarraren tradizioari buruz izango da, Kultur Etxean, aipaturiko egunean, 19:30ean hasita. David Alcalá medikuntza txinatarraren tradizioarekin lizentziatuak izango da hitzaldia ematearen ardura edukiko duenak. Herritar orori irekia izango da, eta doan joan ahalko da.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

- OSASUNA.**
Alegialdea. Osasun z.: 943 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.
 Medikua: 943 65 23 39
Asteasu. Medikua: 943 692423
Baliarrain. Medikua: 943 889003
Berastegi-Elduain.
 Medikua: 943 683361
Bidegoian. Medikua: 943 681134
Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411
Ikaztegieta. Medikua: 943 653329
Irura. Osasun zentroa: 943 690720
Leizta. Osasun z.: 948 510800
Orendain. Medikua: 943 655595
Orexa. Medikua: 943 682228
Tolosa.
Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111
San Esteban: 943 006800
Gernikako arbola: 943 006900
Amarozko dispen: 943 672637
Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
DYA: 943 672536
Gurutze Gorria: 943 674888
Villabona. Anbulat.: 943 006970
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930
GARRAIOAK.
Renfe: 902 24 02 02
Donostiako autobusa: 943 361740
Tolosaldeko bus: 943 650621
Leiztaran autob.: 948 221015
Taxia: 943 670420
Taxia (Leizta): 608 873016
BESTERIK.
Ertzaintza: 943 538820
Tolosa-Udalzaingoa: 943 675858
Tolargi: 943 650016
Lurramendi egoitza: 943 670325
Tolosa gasa: 943 675320
Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Liburuaren Eguneko ekitaldiak

ERREDAKZIOA

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko da gaur, eta ohiko moduan hainbat ekitaldi izango dira irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz antolatutakoak.

Tolosan, esaterako, Udalak Galtezaundirekin batera antolatutako *Irakurri, gozatu eta oparitu* proiektua martxan jarriko dute gaur. Maileguan liburu hartu eta bueltatzerakoan txartela jasoko dute erabiltzaileek Elkar megadendan %25eko beharapenez gozatu ahal izateko. Haur Liburutegian, bestalde, liburu mailegu bakoitzeko piruleta bana jasoko dute



Belautzan, Liburuaren Egunaren harira irakurzaletasuna bultzatzen. A. IMAZ

irakurleek, eta helduenean, liburuak maileguan eramaten dituzten irakurleek liburu zozketa batean hartuko dute parte.

Bestalde, Abaltzisketan, Idoia Sanchezek ipuinak kontatuko dizkie haurrei, 17:15ean, liburutegian, eta ondoren, 18:30ean Amezketako liburutegian izango da ipuin kontalaria.

Anoetan, 15:15ean ipuin kontaketa izango da HH2 eta LH2 maila bitartekoentzat. Kontukantoi kontalariek *Baziren behin neska abenturazaleak eta mutil abeslariak* ipuin sorta kontatuko dute. Eta ondoren, 16:15 aldera, *Hizki-Marrak* ki ipuin marraztuen lehiaketako sari banaketa egingo dute, eta kategorია bakoitzeko lehenengoek euren ipuina irakurriko dute.



Ibiur urtegia, oraindik urik gabe

BALIARRAIN ■ Ibiur urtegia urez betetzen hasita egon behar luke, emanda data kontuan hartuta. Baina oraindik ere, ez dira hasi. Konportak irekita daude eta Baliarraingo Udalak adierazi bezala, «nahiko geldirik dago lan hori». Ur konfederazioak lanak egin behar ditu (zuloa garbitu gehienbat), ur kontsortzioa lanean hasi ahal izateko. Urez betetzen hasteko eman duten hurrengo datua, maiatz izan da. N. URBIZU

Laburrak

Intxurrekoek Seguraren kontra jokatu dute bihar

ALEGIA ■ Intxurreko lurraldekako bigarren mailako futbol jokalariek bihar etxean ariko dira, igoera fasea jokatzeko. 14. jardunaldia da eta laugarren postuan daude memento honetan. 16:00etan hasiko den partida honetan Segura Goierriren kontra jokatu beharko dute, sailkapen nagusiko 9. postuan daude Goierrikoak. Bost jardunaldi falta dira bukatzeko eta 21 puntu dituzte alegiarrek, lehenengoak baino 10 puntu gutxiago. Dena dela, aukera handiak dituzte taulako lehen hiru postuetan bukatzeko.

Euskararen beharrak ikusteko taldea osatu dute

ALEGIA ■ Datorren astelehenean 19:00etan, Alegian Euskalgintza-ko taldearen lehenengo bilera izango da. Hauek Kultur Etxean bilduko dira. Herrian euskararen inguruan dauden beharrak eta egitekoak aztertu eta lantzea du helburu martxan jarri berri den talde honek. Gaiaren inguruan interesa duten herritarrek, parte hartu eta euren ekarpenak egiteko aukera dute bertan. Beraz, herritarrek gonbidatuta daude.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak etab. garbitzeko prest. Deitu inongo konpromezurik gabe. Irene: 638 94 46 04. Itsa-so: 695 70 82 71.

BESTELAKOAK

■ **Txakurkumeak.** Bi hilabeteko bi txakurkume oparitzen dira. Harremanetarako deitu 646 62 98 42ra.

60 urtetik gorakoentzat irteera antolatu dute

AMEZKETA ■ 60 urtetik gorako amezketarrentzat maiatzaren 3rako irteera antolatu du Amezketa gizarte zerbitzuak. Kasu honetan Hendaia, Donibane Lohitzune, Elizondo eta Iruñea ezagutzeko aukera izango da besteak beste. 08:00etan aterako lirake plaza-tik, 19:30ean etxerako buelta egingez. 27 euro ordaindu beharko da honetarako eta izena hilaren 27an edota 28an eman daiteke udal-teen, 09:00etatik 14:00etara bitarte.

Haur eskola martxan jartzeko bilera, asteartean

ALEGIA ■ Datorren asteartean, hilak 28, Alegian haur eskolari buruzko bilera antolatu dute. Udaltxean izango da eta 19:00etan hasiko da. 2009/2010 ikasturterako, hau da, datorren irailetik aurrera, herrian haur eskola (0-2 urte arteko ume-entzat) martxan jartzeko asmoa du Udalak eta, besteak beste, esku artean duten proiektu eta asmoen berri emango da bileran. Beraz, haurtxoak dituzten guraso askoren interesekoa izango da astearteko.



Aurtengo Herriarteko Txapelketaren aurkezpeneko irudia. Tartean Jeremias Perez Anoetako ordezkaria, Luis Galarraga (Bidegoian) eta Gorka Arandia (Albiztur). LEIRE MONTES

Asteburu honetan Herriarteko Txapelketako etorrikoak jokatu dituzte

Pilota » Amezketa, Albiztur eta Bidegoianen daude partidak; Udaberri Txapelketako eskuz banakakoak ere hasi dira.

NEREA URBIZU

Pilotako Herriarteko Txapelketako bigarren partida jokatu dute hainbat herritako pilotariak, etorriko partida, hain zuzen ere. Tolosaldeko Albizturrek, Bidegoianek, Amezketak, Berastegik eta Anoetak jokatu zuten aurreko asteburu eta emaitzak ez dira onak izan denentzat: Anoetak hiru partidak irabazi zituen, Berastegik bat (Amezketaen kontra) eta Albizturrek, Amezketa eta Bidegoianek, bakarra. Horrek esan nahi du, etorriko dena eman beharko dutela aurrera jarraitu nahi badute txapelketa honetan.

Anoetako pilotariak Oiartzunen jokatu beharko dute bihar, 19:30ean hasita. Etzi, berriz, Albiz-

» UDABERRI TXAPELKETAKO PARTIDAK

Apirilak 24, bihar

- **Ibarran.** 19:00etan. Aurrera-Saiazkoak.
- **Alegian.** Kadeteen mailan 19:00etan Intxurreko Gorostidi eta Murua.
- **Ikaztegiatan.** 20:00etan: Elordiko Alonso eta Behar Zanak Esnola, eta Elordiko Artola eta Olano.
- **Villabonan.** 21:00etan. Hiru norgehiagoka, Behar Zana eta Lapkeren artean.

Apirilak 25, etzi

- **Tolosan.** Beotibarren 10:00etan hasita, Aurrera-Saiazko pilotariak

turrek etxean jokatu beharko du etorriko, Arrasateren kontra. Hauek ere 19:30ean hasiko dira, kadeteen arteko norgehiagokarekin.

Egun eta ordu berean baina Bidegoianen etxeokak eta Andoain aritu beharko dira. Igandean

Txapelketako datorren kanporaketan Lizartza eta Asteasu hasiko dira, final-zortziretan

Amezketa amezketarrak eta berastegiarrak ariko dira. Hauek 17:00etan hasiko dira bertako pilotalekuan. Gogoratu behar da, partida hauen guztien artean, norgehiagokagehien irabazten dituen herriak egingo duela aurrera txapelketan, honela final-zortziretan sartuz. Finala jokatu dute nek ekainaren 14an egingo dute.

eta Murumendiko bat. Bost partidak senior mailakoak.

- **Bidegoian.** 15:00etan Aurrera-Saiaz, Segurako, eta Gazteleku pilota eskolak.
- **Alegian.** 16:00etan. Intxurre, Behar Zana eta Aurrera-Saiaz tartean. Guztira lau partida.
- **Villabonan.** 10:00etan Behar Zanak Etxarri eta I. Otaegi kadeteen mailan.

Apirilak 26, igandea

- **Alegia.** 12:00etan Behar Zanak Nazabal, Intxurreko Artolaren kontra, kadeteen mailan.

Datorren jardunaldian Asteasu eta Lizartza hasiko dira.

Batez ere herri txikiak merito handia dute txapelketa honetan parte hartzeko. Izan ere, gutxienez herriko 6 pilotari behar dituzte taldea osatzeko eta askotan ez da erraza izaten. Saiakera berezia egin ondoren, Albiztur, Amezketa edo Bidegoian bezalako herriek osatu dute taldea.

Udaberri Txapelketa ere bai

Orain artekoak, Gipuzkoako Herriarteko Txapelketari dagozkionak dira, baina beste txapelketa batzuk ere badira jokoan. Esaterako, Udaberri Txapelketa. Honi lotutako partidak eskualdean hauek dira: bihar, 19:00etan Alegian eta Ibarran; 20:00etan Ikaztegiatan. Etzi, Villabonan eta Tolosan 10:00etan; Bidanien 15:00etan eta Alegian 16:00etan. Igandean, Alegian 12:00etan.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Euskal Kosta erakusten duten argazkiak Kultur Etxean

Ibarra » Koldo Badillo, Isabel Diez, Raul Esteban eta Asier Castroren argazkien erakusketa maiatzaren 7ra arte ikusi daiteke.

REBEKA CALVO

Koldo Badillo, Isabel Diez, Raul Esteban eta Asier Castro argazkilariek «berezko paisaia» aukeratu zuten *Kosta bat, lau begirada* erakusketa osatzeko. Gai orokorra, hortaz, Euskal Kosta da, izan ere, «mendeetan zehar gure itsasertzak gizatiartze bizia jasan duten arren, oraindik miresten baititugu geratzen diren gune basatiak, guzterat ikus-inspirazioaren iturri direnak», dio Badillok.

Guztira 40 argazki bildu dituzte, hamar argazkilarik bakoitzeko, maiatzaren 7ra arte ikusi daitezkeen erakusketan eta horietan egile bakoitzak gure kostatik azpimarratu nahi izan duena ageri da; arrantzaleen bizia, paisaia bera, kirola, biztanleak...

Ez dira argazki dokumentalak bakarrik, lau argazkilariek naturako argazkigintza «arte-lan gisa defendatzen» dute eta sentimendu hori bera helarazten saiatzen dira euren lanetan. Natura argazkigintzaren ikuspuntu honen alde lan egiteko, argazkilariek *PorfolioNatural.com* proiektuan hartzen dute parte. Euren helburua naturari ateratako kalitatezko argazkiak zabalzea da eta horretarako mugatuta dauden kopia originalak saltzen dituzte.

Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean Kutxari eskerjarrirako erakusketan argazkilariek «argia eta konposizioarekin» jolastuta ateratako argazkiak ikusi daitezke. Aipatu moduan kalitateari garrantzi handia ematen diote eta Ibarrako erakusketan ere oso material ona erabili dute lanei distira eta indar berezia emateko. Kolore biziko ar-

gazki ikusgarriak dira guztiak eta hauekin «ikusleriari naturaren aurrian gogo-aldarte atsegingarria eta mireslea sorrarazten» saiatzen direla diote artistek.

Argazkilariak


Lau argazkilariek esperientzia handikoak dira eta urteak daramatzate natura euren ikuspuntutik deskribatzen.

Koldo Badillo Urduña (Bizkaia) herrikoa da, biologoa da berez, baina segituan konturatu zen irudia maite zuela. Telebista kamera bezala egin zuen lan, baita errealizadore bezala eta noski, argazkilarik bezala lan asko egin ditu. Erakusketa ugari izan ditu Euskal Herrian eta baita kanpoan ere.

Raul Esteban Barakaldokoa da (Bizkaia) eta naturari argazkiak «natura sentitzeko, gozatzeko eta bertan egoteko» aitzaki bezala ateratzen dizkiola dio. Autodidakta da eta 1999. urteaz geroztik paisaiaren argazkigintzan egiten du lan. Bere lanak hainbat liburutan eta aldizkarietan argitaratu dituzte: *Basque Magazine*, *National Geographic Viajes*, *Naturaleza Salvaje*...

Isabel Diez bilbotarra, aldiz, kolorearen erabileran murgiltzen da bere lanen bidez. Artea eta natura uztartu nahi zituen eta argia zein harmonia bilatzen ditu bere lanetan.

Azken argazkilaria ere bilbotarra da, Asier Castro. Aitaren eskutik hasi zen argazkigintzan eta sari ugari jaso ditu jada. Egun diseinatzailerik bezala egiten du lan eta bere irudiak serie mugatuetan saltzen ditu.



Barakaldoko Raul Estebanen 10 argazki ikusi daitezke Kultur Etxean maiatzak 7 arte. R. CALVO



Guztira 40 argazki bildu dituzte; argazkilariek 'PorfolioNatural.com' egitasmoa partaidea dira. R. CALVO

LOOK AGAIN

Marine Hugonnier, Traveling Amazona, 2006, Cortesly, Nagasari-Banchard, Barcelona / Max Wigman Gallery, London

ERAKUSKETA

BIDEO GARAIKIDEAREN BOST IKUSPEGI

Filipa César
Marine Hugonnier
Rosalind Nashashibi
Anri Sala
Rui Toscano

APIRILAK 24 - EKAINAK 21

Errodaje tailerrak travellngarekin,
haur eta helduentzat
Bisita bereziak artistekin
Erreserbak: 620 676 095

Duque de Mandas 52
20012 Donostia-San Sebastián
+34 943 011 311
info@tabakalera.eu
www.tabakalera.eu

INAUGURAZIOA
APIRILAK 24
20:00

TABAKALERA



EL DIARIOVASCO



berria



Antzerki emanaldiak astebetez 'Antzokian gaude' jardunaldietan



Ezkerrean, 'Kanpaiak jo bitartean' antzezlako une bat. Eskuinean, 'Malabreikers' kale-ikuskitzuneke bi aktoreak. HITZA



Ezkerrean, Iraitz Lizarraga eta Arantza Arteaga 'Kanpanilla eta Peter Panen itzala' antzezlanean. Eskuinean, 'Eta zer?' obrako irudi bat. HITZA



Villabona-Zizurkil » Sei emanaldi izango dira ikusgai bi herrietako antzoki eta kaleetan bihurtik hasita; umorea izango da protagonistetako bat.

ERREDAKZIOA

Villabona eta Zizurkilgo aretoak eta kaleak antzerkiz beteko dira bihurtik hasi eta datozen egunetan. Bi herrietako udalek antolatutako *Antzokian gaude* jardunaldien baitan sei emanaldi izango dira. Kale antzerkiak, Zizurkilgo ikasleen emanaldiak eta helduei eta gazteei zuzendutakoak izango dira. Umorea izango da protagonistetako bat.

'Kanpaiak jo bitartean'. Glu Glu Produzioak taldearen emanaldian neska bat eta mutil bat dira protagonista. Neska, amatasuna-

ren deia jaso berri, medikuaren kontsultara doa intseminazio artifiziala praktikatu diezaioten. Mutila, semen emalea, hilero bezala bere dosia entregatzera doa. Ustekabeko kointzidentziak ezagutu berri den bikotea etengabeko gaizki ulertzean nahastuko du, egoera barregarri bezain zalapartatsuetara bidaia egiteko. Galder Perezek sortu eta zuzentzen du obra eta Libe Aranburu eta Ugaitz Alegria dira aktoreak.

'Malabreikers'. Umorez betetako kale antzerkia. Auzo batean jaiotako bi lagun elkartzeko dira, Beto eta Tornillo, *break* dantza emanaldiak



Trapu Zaharrak taldeko 'Lehiaketa' obraren irudia. HITZA

emateko plazetan. Baina, egia esan, ez dira oso iaioak dantza mota hori egiten. Hobeto moldatzen dira malabareak eta akrobazietan.

'Kanpanilla eta Peter Panen itzala'. Txalo Produzioak lan honetan Peter Panen istorioaren ber-

tsioa ematen da, baina Kanpanillaren ikuspuntutik. Arantza Arteaga, Iraitz Lizarraga zizurkildarra eta Jorge Santos dira aktoreak. 3-6 urte bitarteko Zizurkilgo ikasleentzat zuzenduta izango da. **'Eta zer?'**. Dar-Dar Produzioak obra honetan gizaki guztiek ezber-

» EGITARAUA

■ **Apirilak 24, ostirala.** Glu Glu produzioak taldearen *Kanpaiak jo bitartean*, 22:00etan, Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean. Sarrera 3 euro.

■ **Apirilak 25, larunbata.** *Malabreikers* kale-ikuskitzuna, 19:00etan, Zizurkilgo Pedro Mari Otaño plazan.

■ **Apirilak 27, astelehena.** Txalo Produzioak taldearen *Kanpanilla eta Peter Panen itzala*, 15:15ean, Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean.

■ **Apirilak 28, asteartea.** Dar-Dar Produzioak taldearen *Eta zer?*, 09:15ean eta 11:00etan, Villabonako Gurea aretoan. LHko ikasleentzat.

■ **Apirilak 29, asteazkena.** Pedro Mari Otaño eta San Millan ikastetxeetako ikasleen emanaldia, 11:00etan, Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean.

■ **Apirilak 30, osteguna.** Trapu Zaharrak taldearen *Lehiaketa*, 11:00etan, Villabonako Malkar plazan. Eguraldi txarra eginez gero Olaederra kiroldegian.

dirak izateko duten eskubidea aldarrikatzen da. Lau ipuinetan dago oinarrituta: *Nire aita etxeko andrea da, eta zer?*, *Niri futbola ez zait gustatzen, eta zer?*, *Ni potoloa naiz, eta zer?* eta *Nik erremere hitz egiten dute, eta zer?* Zizurkil eta Villabonako LHko ikasleei zuzendutako emanaldia da.

Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eta San Millan ikastetxeetako ikasleak.

San Millango ikasleek 19 esketx egingo dituzte, *Olerki eta pasarte dramatizatuak* titulupean. Esketx bakoitzeko partaideak adin desberdinetako ikasleak izango dira. Pedro Mari Otaño ikasleek hiru emanaldi egingo dituzte: LH1ekoek *Saturnino eta eguzki sistema*; LH4koek *Diruak sendatu nau*; eta LH6koek esketxak.

'Lehiaketa'. Trapu Zaharrak taldearen obra honetan gero eta ohikoa den gai bat jorratzen dute: seme-alabek gero eta beranduago alde egiten dutela gurasoen etxetik. Jenaro izeneko garraiolari autonomo batek ikusten du nola bere semeak, Jenarinek, ez duen inolako asmorik etxetik alde egiteko. Horregatik, Udalak antolatzen duen *Es-kua altxa eta aukera* ezazu *funtzionario bat* lehiaketa-ikuskitzuna aurkeztzen da, bere semearentzako lanpostua lortzeko.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Tolosan iragan hilabetearen azken ostiralean, martxoaren 27an, Etxeratek deituta jende ugari elkartu zen. HITZA

Etxerat: «Sufrimendua eta heriotzak ekarri ditu, baina dispertsioak porrot egin du»

Gizartea » Ohiko leku eta orduetan «azken ostiraleko» elkarretaratzeak egingo dituzte gaur eta bihar.

ASIER IMAZ

Etxeratek elkarretaratzeak egingo ditu Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan bihar, hilabeteko azken ostirala izaki. Leaburu-Txaraman gaur 20:00etan elkartuko dira.

Apirilaren azken ostiral honetan, hilabete guztian zehar bezala, sakabanaketa edo dispertsioa salatu dute, «politika krudel honen fase berriak hogeitau urte bete baititu».

«37 hildako eta 267 istripu»

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Etxerateko kideen esanetan sakabanaketak sufrimendua besterik ez du ekarri: «21 euskal preso hil dira Espainia eta Frantziako ziegetan. Hori gutxi balitz, bisita egitera zihozten 16 senideek ere heriotza topatu dute sakabanaketa dela eta. Astero, milaka kilometro egin behar ditugu eta horrek gure bi-ziak arrisku bizian jartzen ditu. Horren lekuko, euskal preso politikoen senide eta lagunok pairatu ditugun 267 kotxe istripu larriak dira».

Etxerateko kideek sakabanaketa «politika xantaia amaigabe batekin» alderatu dute: «Euskal Herriaren etorkizuna baldintzatu gura duen xantaia. Euskal preso politikoak pertsona moduan suntsitu eta euren senideak era guztietara hustu nahi dituen politika da. Fisikoki, psikologikoki eta ekonomikoki indargabetu nahi gaituzte,

gure senideekin amaitzeko asmo. Baina, argi eta garbi esan behar diegu, gurekin jai dutela. Porrot egin dutela».

«Politika honekin amaitzea» exijituko dute

Gaur eta bihar egingo diren elkarretaratzeen amaieran, azken asteetan aipatu tako ondorio bera plazaratuko dute Etxerateko kideek: «Min emateko gai izan dira hogeitau urte hauetan, baina porrot egin dute. Ez dituzte inolaz ere euren helburuak bete eta horregatik espere politikaren krudelkerian besterik ez dutesakondu. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak ez askatuz eta bizi osorako zigorra aplikatuz, besteak beste. Guk, honekin amaitzeko exijitzen dugu. Ez gaude bakarrik, Euskal Herriaren gehiengoak eta munduko hainbat elkarte, Nazio Batuen Elkartearen arteko, sakabanaketa-kin bukatzeko eskatu baitute».

Azkenik, orain arte bezala jarraitzeko asmoa azalduko eta eskatuko dute: «Sakabanaketak, urrututasunak, isolamenduak, jipoiak, mehatxuak edo gure senide

eta lagun heriotzak ez du elkartasunarekin amaitu. Euskal preso politikoek etengabeko babesa jaso dute 20 urte hauetan. Eta horrela izaten jarraituko du. Nahiz eta gure aurrean inolako legitimitate moral eta politikorik ez duten politikari frakasatu bazuak gure maitasunarekin amaitu nahi. Baina ezin dute, gure elkartasunak euren jarduna egunero deslegitimatzeko baitu...».

» ELKARRETARATZEAK

Apirilak 23, gaur
■ Leaburu-Txarama. 20:00etan.

Apirilak 24, bihar

- Aduna. 20:00etan.
- Alegia. 19:30ean.
- Amezketa. 19:30ean.
- Anoeta. 19:30ean.
- Asteasu. 20:00etan.
- Ibarra. 19:30ean.
- Ikaztegieta. 20:30ean.
- Leizta. 20:00etan.
- Lizartza. 20:00etan.
- Tolosa. 19:30ean.
- Villabona. 20:00etan.
- Zizurkil. 20:00etan.

@ Papereko Edizioa. Sartu gure web orriaren *Papereko Edizioa* atalean. Bertan TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkarian agertzen diren albiste guztiak irakurtzeko aukera izango duzu. Albisteen bilaketa zehatzagoa egin nahi ezker, aukeratu eskualdeetako herriaren bat eta sakatu bere gainean. Ondoren *Papereko Edizioa* klikatu eta herri horren inguruko albisteak agertuko zaizkizu. Zure iritzia utzi nahi izanez gero, albistearen amaieran *erantzunak* jartzen duen lekuan idatzi: www.tolosaldekohitza.info

Kinka larrin



» Herrira begira

Asier Arzallus
Saskibaloijokalaria

Aspaldiko partez, Aste Santu-tako oporraldin ondoren, berri hementxe nau Coruña-tik nere berri emateko. Pixkana-pixkana ta enteatu gabe urtea aurrea di ta delbaldie bukatzeaz daukeu.

Aurreko aldin egoera larrin ginenudela esan banizuen oingon honetan ezta hobe. Izane bi partidu gelditzen zaizkio ta maila mantentzeko bik irabazi beharra dattu, ta hoi gutxi balitz Gijon-ek bere bi partiduk galdu beharko litzuzke. Esan beharra dau Gijonek azken partidue bere etxen Ligako azken taldearen kontra daukela, beraz oso larri gaude. Beño esan beharrik ezta gure esku daun guzie ingo dula azken minuturarte.

Gertatzen dena gertatutara pasa ditteken beste gauza bat kontatuko dizuet. Datorren denboraldin Liga aldatzeko billerak itten ai die Federazio ta taldeetako arduradunen arten. Besteak beste 16 taldetik 18 talde kopurura aldatu nahi dute, ta ondorioz aurtan ez zen inor jaitziko.

Beste kezka haundioak badaude ebai saskibaloijokariaren. Azken artikuluan kontatu nizuen ekonomikoki oso gaizki zeudela talde asko, ba egoerak txarrera in dola esan ditteke. Momentu hotan talde askotako jokalarik greban daude hilabete askotako soldatak zor dizkietelako.

Honen ondorioz hurrengo urten talde asko desagertuko die ta Ligak osatzeko arazo asko eonen die uda honetan. Ikusiko duze pasatzen den azkenen...

Taldeaz hitzein ondoren balorazio pertsonal tiki bat ingo dot. Gustora nau indako lanekin, entrenadoreen konfiantza irabazi dot ta minutu asko jokatzeko aukera euki dot, azkenaldin ia partidu osoa. Nahiko erregularra izan naiz urte guztin, batez kanpoko partidutan. Arraroa badare kanpoko partidutan nere zenbakik bikoiztu dattu, ta etxekotan gehio kostatu zait. Pena haundie ematen dit partidu gehio ez irabazi izana, 2 edo 3 puntu asko galdu dattu ta suerte pixkoxat faltatu izan zaiu zenbatetan.

Kirol arloa utzita oso ongi sentitzen naizela Coruñan esan beharra dot. Taldekide bikañek dattu ta orokorren tratu oso ona jaso dot alde guztian. Hiri hau ezautzen ez dunari, eunen baten aukera baldin bada, etortzea gomendatzen diot. Oso bazter politteke daude ta pena merezi do.

Bueno ba besteik gabe bukatzen dot gaurkoa, ongi izan!

Udalbatzak bilkura egingo du bihar

Leizta » 21:00etan izango da udaletxeako pleno aretoa; gai desberdinak jorratuko dituzte.

A. IMAZ

Ohiko Udalbatzaren bilkura egingo dute herriko ordezkari politikoek bihar 21:00etan. Udaletxeako

bilkura aretoa hainbat gai landuko dituzte.

Batetik, herri lurretarako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantzen testu bateratua onartzea. Bestetik, NA170 eta NA-1700 errepideak elkartzen diren tokian biribilgunea egitea, herrigunean obra hasteko eskaera. Halaber, lan osasunaren nazioarteko eguneko mozioa aztertuko da.

arantzazu

bila dabilzan pertsonentzat - santutegia, kultura eta natura

ezagutu Arantzazu gaur
uste duzuna baino gehiago da

www.arantzazu.org



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Abaltzisketa.** Ipuin kontaketa izango da Liburuaren Eguna gogoratzearekin batera. 18:00etan hasiko da ekitaldia eta Kultur Etxean izango da, Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta.
■ **Anoeta.** Hizki-marrakzi ipuin lehiaketako sari banaketa ikastolan arratsaldean, Nazioarteko Liburu Eguna dela eta.
■ **Leaburu-Txarama.** Apirilaren 25ean mus txapelketa egingo dute, 16:30ean, Txarama Elkartean. Doan izango da txapelketan izena ematea. Ondoren afaria egingo dute. Bietarako izena emateko azken eguna apirilaren 23a izango da.

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Komunikatzeko gaitasunaz ikastaroa hilaren 25ean, larunbatean, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30era.
Informazioa eta izen eman nahi duenak 943 118669 telefono zenbakian egin dezake.
■ **Tolosa.** Ereite elkarteak ipuin tailerra antolatu du bere egoitzan (San Esteban, 20) asteazkenetan 18:00etan hiru hilabetez (15 euro) izen-ematea, 685 750561 telefono zenbakian edo multiculturalereite@yahoo.es helbide elektronikotan.
■ **Tolosa.** Eskaladan hastapena ikastaroa helduentzat Usabal kiroldegiko rokodromoan astearte eta ostegunetan 09:30etik 11:00etara edo 19:30etik 21:00etara.

Zinema

■ **Tolosa.** Werner Herzogen *Munduaren azkeneko elkartzeak* Antartikari buruzko dokumentala Leidor aretoan 19:30ean eta 22:15ean, zine-forumean.

Irteerak

■ **Tolosa.** Amaratzeko jubilatuek Arnedora irteera antolatu dute hilaren 26rako. Izen-ematea, jubilatuen egoitzan ostegun eta ostiralean 17:00etatik 20:00etara (12 euro). Informazioa 653 747192 telefono zenbakian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartz auzoa, 9. 043 675118.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Handik eta hemendik irudiak



VILACHA (LOUSADA-PAZO) ● Lurdes Gorostegi Galizian izan da lasaitasun bila. Hauxe kontatu digu argazkiaren inguruan: «Galiziako inguru hauetan, hiririk urrunduz, lasaitasunean egun politak pasa ditugu: katiuskak jantzi eta basoan zehar ibilaldiak egin; bertako produktuak dastatu; gaueko zero izartsuaz gozatu... munduan bakarrik izango bazina bezala». LURDES GOROSTEGI



BEHORLEGI ● Natura gogorra izan daiteke eta hori erakutsi zuen pasa den Aste Santuan. Egoitz Euskal Herrian geratu zen eta iparraldera eginiko txango batean ere ohartu zen honetaz: «Behorlegiko ertzean geundela (Ipar Euskal Herria), gero hainbestetan errepikatuko ziren ekaitz-hordeiak sartu ziren, trumoi hotsei tarte emanez». EGOITZ BENGOTXEA



A Agurrak



Zorionak!

Ugaitz Ugartemendia Mendizabal (Leitza). Gaur 3 urte. Egun ona igaro dezazula Berastegi eta Urdaingo familiaren partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

digitala
h
@

Astelehenean,
apirilak 27, 12:30ean
LEIRE OLABERRIA
Ikaztegiatiko
Txirrindulari profesionalarekin
elkarrizketa digitala



Bidali zure galdera!

HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zure galderak erantzuteko. Aurrez ere zure galderak bidali ditzaizke gure webgunean.